

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2024-02-16 OSTIRALA / 894. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

**Ihotearen
beiretzea**



Mozorroen ibarra

Moxorroak, hartza, Aitezarko, Landarra, zatamarroak, mamuxarroak, mutuak, txatarrak, kamarroak, jitomoxorroak, momoxarroak, momotxorroak, akerrak, hartza, sorginak, maskaritak, juantranposoak, zamar handi eta txikiak, neskak, alkatea, medikua, apaiza, almintea, basozaina, zomorroak, pezkinak, artzainak... Eta horiei gehitu hiri ihoteko irudimena eta kolorea. Sakana, mozorroen ibarra



ARBIZU - LEXURI PETRIATI BERASTEGI



UHARTE ARAKIL - MARINA AREVALO ALONSO



ETXARRI ARANATZ



IRURTZUN - MARINA AREVALO ALONSO



LIZARRAGA - UTZITAKOA



IRURTZUN



ARRUAZU - AITOR



ITURMENDI - UTZITAKOA



LAKUNTZA



ALTSASU



UNANU



ARRUAZU - AITOR



IRURTZUN - MARINA AREVALO



ETXARRI ARANATZ



URDIAN



IRURTZUN



LAKUNTZA



LIZARRAGA



ETXARRI ARANATZ - MARINA



OLATZAGUTIA



DORRAO - UTZITAKOA

bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

**EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA**

848 870 917 bertoko.eus

A group of people are holding a banner that says "HARRI HERRI". The scene is outdoors on a grassy area.



ALTSASU



LIZARRAGA



UNANU



URDIAIN - FRANCIS IRIGOIEN



ALTSASU



ARBIZU



OLATZAGUTIA



URDIAIN



ETXARRI ARANATZ



ARRUAZU - AITOR



UHARTE ARAKIL - MARINA



LAKUNTZA



LAKUNTZA - KARLO



UHARTE ARAKIL - MARINA AREVALO ALONSO





ATE IREKIAK (Txiokan)
Otsailak 22, 16:30ean
Martxoak 1, 16:30ean



HITZORDU PERTSONALIZATUAK



www.inigoaritzza.eus



948562951 / 689454168




ikastola@inigoaritzza.eus



ARBIZU



ALTSASU



URDIAIN - FRANCIS IRIGOIEN



ALTSASU



URDIAIN



OLATZAGUTIA



LIZARRAGA



LAKUNTZA

HIRIBERRI INAUTERIAK

OTSAILAK 17 Larunbata

13:00 Mozorrotuen topaketa, eta trikipoteoa.

Etxeko animaliak, abereak eta basa piztiak. Aurten inauterietan mozorrotzeko gaia animaliak baitira.

15:00 Mozorrotuen bazkaria, Txitera elkartean.

18:00 Kalejira.

18:30 Aittako erretzea, plazan.

BAKAIKU KAMARROAK

OTSAILAK 17 Larunbata

14:30 Herri bazkaria, elkartean.

17:30 Kamarroen kalejira.

Zakuak, arropa zaharra, animalien burezurak, odolez zikinduta, narrua... eta makil luzea eskuan daramatzate.

ITURMENDI HIRI INAUTERIAK

OTSAILAK 17 Larunbata

14:30 Herri bazkaria, Aizkozar elkartean.

18:30 Txokolate jana.

19:00 Kalejira txarangarekin.

ALTSASU HIRI IHOTEA

OTSAILAK 17 Igandea

12:00-14:00 Haize Berriak girotutako kalejira eta bermuta, Foru plazan eta inguruetan.

18:30 Kalejira Eztanda

Txarangarekin.

19:30-23:30 Akerbeltz taldearekin dantzaldia, Foru plazan.

24:00-02:00 DJ A&A, Foru plazan.

OLAZTI HIRI IHOTEA

OTSAILAK 17 Larunbata

12:00 Mozorrotuen karrozen irteera, areto futboleko pistatik.

14:30 Herri bazkaria, frontoian.

17:00-19:30 Los Pasai txaranga.

19:00-23:00 Xaiborrekin dantzaldia.

20:00 Mozorroen lehiaketako sariak, dantzaldian.

ZIORDIA HIRI IHOTEAK

OTSAILAK 17 Larunbata

14:30 Kuadrillen bazkaria.

Ondoren, mozorroen poteoa.



OLATZAGUTIA



ARBIZU



UHARTE ARAKIL - MARINA AREVALO ALONSO



UNANU

Txalaparta
Taberna
Ongi pasa ihoteak!
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Ongi pasa ihoteak!
PORTUKO
Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

KINTOAK



UHARTE ARAKIL Parrandan ibiltzeko kinto eskea egin zuten Uharre Arakilgo kintoek. Trikitilariak lagun, bonboa gogoz joz, non diren nabarmen entzuten da. Eta kintoen inguruan haurrak, gazteek botatako arrautzak ez jasotzeko ahaleginean.



LAKUNTZA Hamabost gaztek osatzen dute aurtengo Lakuntzako kinto segizioa; egunean zehar herritik eta lantegietatik eskean aritu ondoren Tolosako inauterietara joan ziren gazte lakuntzarrak.



ARBIZU Arbizon kinto eskea egin zuten igande goizean. Tresondagarriyek izena duen festetako atorra jantzita zutela, kintoak herri guztian barna eskean ibili ziren. Trikitilariak izan zituzten lagun. Baina hotsa ateratzeko bonboa eta petardoak ere erabili zituzten.



ETXARRI ARANATZ 23 kintok osatu zuten kinto segizioa Etxarri Aranatzen. Gaua Tolosan pasa ondoren, Etxarriko kaleetan eskean ibili ziren asteartean, txarangak lagunduta. Abenduaren 31n diru nahiko bildu ez zutela irritzita, txerrikume bat zozketatu zuten arratsaldean.

UTZITAKOA





BAKAIKU Hamahiru gazte elkartu ziren kinto segizioan Bakaikuko kaleetan, horietako bost kintoak ziren. Trikitilari eta pandero jotzailearekin batera eskean ibili ziren herrian zehar, eta diruaren truke ardoa eta gazta banatu zituzten.



ITURMENDI Aurten bi iturmendiar dira kintoak, eta beste hemezortzi gazteek osatu zuten kinto segizioa Iturmendin. Etxerik etxe ibili ziren diru eskean eta moskatela eta pastak banatu zituzten iturmendiarren artean.



URDIAIN Kintoek, kinto gazteek, kinto zaharrek eta beti kintoek elkarrekin ospatu dute Santa Ageda, 50 gazte urdiaindar guztira. Eguzkia lagun, igande eguerdian zortzikoa dantzatu zuten aurtengo kintoek, plazan, eta ospakizunak gaueko ordu txikitik despeditu zituzten.



ZIORDIA Etxerik etxe igaro zuten goiza aurtengo bi kintoek eta gainontzeko segizioak. Indarberritzeko atsedenaldiaren ondoren, Ziordiko zortzikoa eskaini zioten gerturatu ziren ziordiar guztiei plazan.





ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Liburuak

Altsasuko Liburutegiaren 90. urtemuga den honetan irakurketaren onura batzuk aipatu nahi nituzke. Alde askotatik aipa daitezke, baina hemen batzuk: ulermen, arreta, hausnarketa, pentsaera kritikoa eta pertsonen memoria areagotzen du... besteak beste.

Memoria areagotu eta horretaz kontzientziatu, eta memoria ari garea niri memoria historikoa datorrit burura. Horrekin erlazionatutako hiru liburu zein une ezberdinetan iritsi zitzaizkidan, eta erabat harrapatu ninduten eta gertatutakoak kontzientziatu.

Horietako lehenengoa Marino Ayerraren *No me avergoncé del Evangelio* da. Honek gazte garaian harrapatu ninduen. Gure etxean ez zen liburu askorik, ohikoa zen bezala, baina horien artean bazen bat guztiz higatuta zegoena, hamaika aldiz irakurria eta hartua balitz bezala. Gurasoek, halako batean, erabaki zuten bazela garaia haiek kontatu gabeko guztia guk jakiteko eta horretarako aipatutako liburu gure esku jarri zuten. Inpresioa ikaragarria izan zen eta gehiagorako jakin mina piztu zidan.

ISILDUTAKO GUZTIA, LIBURUEN BITARTEZ JAKITERA EMAN IZAN DIGUTE SEKULAN AHANTZ EZ DAKIGUN

Harrezkero liburu historikoekin aparteko interesa izan dut, eta bidean beste liburu interesgarriak ere topatu ditut. Berriki beste bi liburuk harrapatu naute, alegia, *Altsasu 1936* eta *Los libros del maestro* izenburu

durenek. Bietan, Altsasun eta Nafarroan, ikuspuntu ezberdinetatik eta guztiz elkarren osagarrietatik, urte haietan gertatutakoak jorratzen da.

Hiru kasutan, urte luzez, beldurratetik, eragindako sufrimenduengatik, gorrotoa ez zabaltzeagatik edo dena delakoagatik, etxe askotan isildutako guztia, liburuen bitartez jakitera eman izan digute sekulan ahantz ez dakigun.

Bide batez, zorionak Altsasuko liburutegiari eta bertako arduradunei.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitululka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Pobrezia

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Pobreziaren Aurkako Nafarroako Sareak 30 urte beteko ditu aurten. Bere jarduna beharrezkoa da gaur egun ere, gure erkidegoan pobrezia edota gizarte bazterkeria pairatzeko arriskua baitu herritarren % 14,5ak.

Urte hauetan guztietan "argazkia" aldatu da. Hasiera batean oinarritzko beharrak asetzeko aukera ezarekin lotzen zen pobrezia (lan falta, elikagaiak, etxebizitza...); gaur egun, lanak, bere prekaritatearekin, ez du bermatzen oinarritzko beharrak asetzea; etxebizitza duina ez dago denen esku (faltagatik edo alokairu altuengatik, soldaten ehuneko handia bideratzen da horretara), osasun arazoak dituztenek (fisikoak nola mentalak) aukera gutxiago dituzte, eta familiak murriztagoak izatea, edota migrazioak laguntza sareak ere ahultzen dituzte.

Erakunde honek dioenez pobrezia heredatu egiten da gaur egun. Transmisioaren dinamika apurtzea ez da erraza, ez dira aukera berriak erraz sortzen; jaioterriak,

jaiotetxeak eta testuinguruak erabat baldintzatzen dute bakoitzaren etorkizuna. "Helburua ezin da izan jendeari jana ematea; pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzen dutenak euren bidean laguntzea da egin beharrekoa", baliabideak, ildoak, eta indarra horretan jartzea.

Pobreziaren Aurkako Nafarroako Sarearen 30. urteurreneko ospakizunetan, hilero, gai bat jorratuko dute ekitaldi ezberdinetan. Otsailean osasunarekin hasiko dira, eta jarraian, hurrengo hilabetetan landuko direnak:

etxebizitza, adingabeak, lana eta formazioa, gizarte parte hartzea, migrazioak, eskubide digitalak, hezkuntza, pobreziaren kontrakoa, generoa eta giza eskubideenak izango dira.

Herritar guztiok bizitza duin bat eta oinarritzko beharrak bermatuak izateko eskubidea dugu. Bide horretatik joan behar dugu erakundeok (baliabideak jarritz) eta norbanako bakoitzak (hutsik ditugun etxebizitzak prezio egokian alokatuz, adibidez). Gizarteak ezin du onartu pobrezia berezko zerbait balitz bezala izatea.



OBJEKTIBOTIK



asiermendia Elunabarrak /

Berain, Nafarroa

ZUZENKETA

Aurreko zenbakian, 12. orrian, Etxarri Aranazko kintoak 22 zirela adierazi genuen, benetan 23 direnean. Zerrendan Nahia Senar Ormazabal falta zen. Barka nahasmena.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirrolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



Margari eta Regina Urrestarazuk azalpenak eman zizkieten kontseilariari.

Aurki emanen dituzte egindako hiru etxebizitzak

Nasuvinsak Alokairu Poltsaren bidez esleitzeko prozesua hasiko du Eskatzaileen Erroldan begiratuta

BAKAIKU

Eskolen eraikineko goiko solairuan Nasuvinsak hiru etxebizitza egin ditu. Muturretan dauden etxebizitzek 61 m²-ko azalera dute eta haien erdian dagoena, berriz, 64 m². Bakaikuko Udalak eta enpresa publikoak hitzarmena sinatu zuten. Horren arabera, hiru etxebizitzak Bakaikun egiazko bizileku etengabea duten eta gutxienez bi urtez erroldatuta daudenendako izanen dira. Etxebizitzetan interesa dutenek Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erroldan izena emanda izan beharko dute. Han dauden eskatzaileen artean esleitu dituzten etxebizitzok Nasuvinsak.

Adostutakoaren arabera, udalak etxebizitzak goinuari 14 urterako utzi dizkio, hura bukatzean udalari bueltatuko zaio erabilera eskubidea. Epea luza daiteke sozietate publikoak egindako inbertsioa amortizatu ahal izateko. Bakaikuko kasuan lanek 288.872 euroko aurrekontua izan dute, hiru erakundek ordaindu dutena: Nafarroako Gobernuak (%57,7), Nasuvinsak (%29,8) eta Bakaikuko Udalak (%12,4). Eraikineko teilatua udalak aurretik berritu zuen. Eta beheko solairua ere udalak berritu du haur eta gazte txokoa eta erabilera anitzeko gela hartzeko.

Errolda

Gobernuaren Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Errolda erre- gistro bakarra da, Nafarroan etxebizitza babestua eskuratu

nahi duten pertsona guztiek bertan izena eman behar dute. Errolda horren bidez esleitzen dira etxebizitza babestuak. Hartan izena eman nahi dutenek bi modu dituzte. Telematikoki, foru administrazioaren etxebizitza webgunean (<https://labureus/b7ANE>) sartu beharko dute. Horretarako, ziuurtagiri digitala edo CI@ve sistema erabili beharko dira.

Aurrez aurre, eskatu aurretiko hitzordua 948 012 012 telefono zenbakian, edota Interneten bidez Nasuvinsaren Iruñeko bulego- gora joateko. Bete izena emateko zirriborroa (<https://labureus/dYFAB>), eskatuko dizkion datuak xehatzen dituen. Aurkeztu zirriborroa hitzorduaren egunean, izena emateko dagokion tokira joan, eta han emanen dioten agiria sinatu beharko du, betekizunak betetzeari buruzko norberaren erantzukizunpeko aitopena. Zalantzak, berriz, censo@nasuvinsa.es posta elektronikoko helbidean argituko dituzte.

Izena emateko baldintzak dira: adinez nagusia izatea; Bakaikun erroldatuta egotea, egoitza baimena izatea; ezin da etxebizitza edo haren zati baten jabe izan; azken bost urtetan ezin izan dute etxebizitza bat edo haren zati baten jabetza edo erabiltzeko eskubidea besterendu. Salbuespena, besterentzeak 90.000 euro baino diru sarrera txikiagoak ekarri izana eta, azkenik, gutxi- noko diru sarrerak.

Bestalde, Nasuvinsak Arbizun eta Altsasun 26 etxebizitza eginen ditu. Lanak aurki hasiko dira.

ERAIKUNTZA
GEHIGARRIA 2024

MARTXOAK 15
IRAGARKIA JARTZEKO AZKEN EGUNA: MARTXOAK 6



948 564 275 • 661 52 32 45 • PUBLI@GUAIXE.EUS



Gloria Lopez Urmeneta irakasle ohia, Olatz Arbizu Garmendia ikasle ohia eta gurasoa eta Marta Lopez Urmeneta irakasle ohia.

Ikastolak Arbizun mende erdia egin du

Arbizuko ikastolak 1974an abiarazi zuen guraso talde batek eta irakasle batek. Ikastola batzordeak urteurrena ospatzeko hilero zerbait antolatuko du. Hasteko, ikastolari buruzko argazki erakusketa ikusgai jarri zuten ilbeltzeko azken asteburuan

Eneida C. M. / Alfredo A. I. ARBIZU Frankismo bukaeran euskararen egoera zein zen ikusita, guraso arbizuar batzuek elkartu eta ikastola proiektua egitea erabaki zuten. Euskararekiko kezka aparte, haien seme-alabak bertako kulturari hazi nahi zituzten guraso haiek. Ordurako Etxarri Aranazko eta Lakuntzako ikas-

tolen ereduak bazuten, eta pausoa ematea erabaki zuten. Ordurako Arbizuko haurren bat Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan zegoen.

Kezka eta beldur askorekin eman zituzten aurreneko pausoak, baina, aldi berean, ausart jokatu zuten. Orduko eskolako irakasleak, Solek, liburutegian gela bat egokitze baimena eman zien

ikastola sustatu zuten gurasoei. Arbizuko ikastolako aurreneko irakaslea Berueteko Maite Arangoa izan zen. Han urte eta erdi inguru egon ziren. Hezkuntza Ministerioaren kexen ondorioz, gela utzi behar izan zuten eta gurasoak espazioak bilatzeari ekin zioten. Miltxonea eta Hilario etxeetatik pasa ziren. Ondoren udaletzeko goiko solairuan lehenik, eta kartzela izandakoan gero, bi gela txiki sortuz. "Izugarrizko ibilbidea egin zuen ikastolak", azaldu du Gloria Lopez Urmenetak, urtetan ikastolako irakaslea izandakoak. Handik eraikin berrira pasa zen ikastola 1982an. Eraikina udalarena da, eta han jarraitzen du.

Lekualdaketa bakoitzean lokala egokitu beharra zegoen. Horregatik dio Gloriak ikastola abiarazi zuten gurasoen inplikazioa "izugarria" zela. Auzolanean egiten zituzten lekualdaketak. "Gurasoak horretan pozik ibiltzen ziren", gogoratu du Marta Lopez Urmenetak, irakasle izandakoak. Gloriak 18 bat urte egin zituen Arbizuko ikastolan irakasle, Martak 15 bat. Gaineratu duenez, "edozein gauza eskatu, eta han zeuden gurasoak. Berehala mugitzen ziren. Gudan sinisten zuten. Genituen proposamenak ez zituzten zalan-

tzan jartzen. Harea behar zela, harea bila; negutegia jarri behar zela, aurrera; gortinak behar zirela, polit batzuk jarri zizkiguten. Pasada bat". Gurasoak irakasleendako gertukoak izan ziren.

Lekukotzak

Gloriak ziurtatu duenez, "erronka potoloa izan zen". Martarendako "oso urte politak" izan ziren, eta, aldi berean, "oso gogorak. Militantzia hutsa zen, oso gutxi kobratzen genuen. Esaterako, Gloria urtetan gizarte asegurantzarik gabe egon zen. Dena egiteko zegoen". Materiala falta zen, eta egin behar izan zuten aurreneko irakasle haiek. Gainera, Pedagogikoki prestatu behar izan zuten, horretarako udak baliatzen zituzten. "Garai hartan Pedagogian bultzada izan zen, Pedagogia berritzailea: asko ateratzen ginen herrira. Naturarekiko izugarrizko harremana genuen. Gela barruan jatekoak prestatzen genituen". Bartzelonan Rosa Sensaten metodologia ikasten egon ziren ere, gogoratu du Gloriak. Eraikin berriaren txokoak antolatu zituzten irakasleek: matematika txokoa, irakurketa eta idazketa, sukalde... "Txoko guztiek helburuak zituzten eta oso-oso gustura ibiltzen ginen", azaldu du Gloriak. Aldi berean, "andereñoen artean koordinaketa asko egiten genituen. Ilusio eta gogo hori zegoen", azaldu du Gloriak. "Oso talde polita osatu genuen", borobildu du Martak. Hasiera hartan Arbizuko ikastolak bi gela zituen: 2 eta 3 urteko umeena eta 4 eta 5ekoena. Marta txikiarekin aritu zen. 10-15 ikasle zituen. Gloria besteen irakaslea izan zen, 19-21 ikasle artean zituen.

Gaur egun

Arbizuko ikastolak bi gela handi ditu, bakoitza bere terrazarekin, baita psikomotrizitatea lantzeko erabiltzen den ganbaratxo ere. Gaur egun Arbizuko ikastolan hamar haur daude, 3 eta 5 urte artekoak. Gloriak azaldu duenez, "ikasle talde txikia, harreman aldetik, oso aberatsa da". Olatz Arbizu Garmendia

GURASO, IRAKASLE, IKASLE OHIEKIN ETA EGUNGOEKIN KAFE TERTULIA EGONEN DA OTSAILAREN 23AN

gurasoa da, eta azaldu duenez, berak ikasle gisa bizi izandakoa "orain, gutxi gorabehera, berdina da: kanpora ateratzea, naturarekin kontaktua... Esaterako, jubilatuekin asko elkartu dira, eta denak oso pozik. Gakoa da: herria oso txertatuta dago Arbizuko ikastolan. Bertako gurasoek sortutakoa da. Nortasun handiko ikastola da, bertan oso finkatuta dagoena, eta ikusten da". Gaineratu duenez, "ikasle guztiak elkarrekin gela batean asko egoten dira. Familia giroa dute, eta haien arteko lotura izugarria da. Luxua da adin desberdinetakoak elkarrekin egotea. Haiek artean dituzten harremanak gero kanpoan ikusten dira. Nire semea txikiena da orain eta zaharrenek babesa sentitzen du".

Berta Moriñigo Encina da tutorea eta irakaslea. Gainera, Nagore Urdangarin Agirre eguneroko joaten da Andra Mari ikastolatik, eta Igone Razkin Lazkoz ere. Sei urterekin ikasleak Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolara joaten dira, autobusez.

Urteurrenez

Arbizuko ikastolako batzarrean 50. urteurrena "ospatzeko" zerbait egin behar zela aipatu zuten 2023an. "Herriarendako eta adin guztiendako" jarduerak zituzten buruan, baita hilero zerbait egitea ere, "festa handixeago batekin bukatzeko", azaldu du Arbizuk. Horretarako, herriko gurasoek lantaldeak osatu dituzte. Jardueren egitaraua prestatzeaz aparte, ikus-entzunezkoa egiten ari dira. "Belaunaldi bakoitzeko ikasle ohi, irakasleak elkartzeko saiatu eta bakoitzaren esperientzia, oroitzapenak bilduko dituen bideoa izanen da. Ez dakit noiz izanen den emanaldia", azaldu du Arbizuk.

Guztia "auzolanean" egiten ari direla nabarmendu du, Arbizuk. "Hori baita ikastolen izpiritua. Herriatik sortu da, eta herriarendako da, denok elkarlanean. Helburu tinko batekin: gure nortasuna, euskara erdigunean daukana eta ezinbestekoa dena". Gurasoak gaineratu duenez, "ikastolak daukan proiektu propioa Euskal Herriarendako da, zazpi probintziendako, euskara erdigunean daukana eta metodologia propioa daukana. Balore horietan hazten diren haurrak etorkizuneko helduak dira. Jarraipena nahi badugu, hori da bidea", borobildu du.

DUELA 25 URTE...



Kintoak Uhartan

Uhartan betidanik iraun duen ohitura bakarra kintoena zen, 60 urte baino gehiago zuena. Lehen 18 urte baino gehiagoko mutilek ospatzen zuten. Haiek arduratzen ziren festak antolatzeaz, eta kinto ospakizuneko larunbatean plazan musika jartzen zuten. Etxez etxekoan jatekoak biltzen zuten. 1999an kintoena 18 urteko neska-mutileen festa zen. Ospakizun egunetan etxeko arropa zaharrenekin eta ile-ordeak jantzita ibiltzen ziren, eta etxez etxekoan dirua jasotzen zuten.

Arakil gobernua industrialdeei noiz bultzada emateko zain

Udalak bilerak izan ditu foru administrazioko kideekin, hitz onekin etorri da

ARAKIL

Arakilgo Udalak bi industrialde ditu. Industrialdeetako bat Irurtzongo Erabidea industria gu-nearen eta Nafarroako Autopista (AP-15) artean dago. Bestea, berriz, Etxarrengo Ardantzeta da. Bi industrialdeak garatzeko Arakilgo Udala Nafarroako Gobernuaren zain dago. Izan ere, foru administrazioak industria eremu bakoitzarendako Udalaz Gaindiko Eragin Plan Sektoriala egin beharra du. Plan horien bidez espazioak ordenatu egiten dira, gero eraiki ahal izateko. Irur-

tzungo planaren zain zazpi urte darama udalak. Etxarrenen enpresa bat dago 2022tik.

Oihana Olaberria Jaka alkateak jakinarazi duenez, Nasuvinza enpresa publikoko eta foru administrazioko Lurralde Antolakuntzako zuzendaritzako ordezkariekin bilerak izan ditu berriki. "Ez dago aitzakiarik plan horiek ez egiteko. Ardantzeta industrialdean enpresek interesa dute", azaldu du Olaberriak. Arakilgo alkateari jakinarazi diotenez, gaia mugitzen hasi dira. Bietatik Irurtzongo

industrialdeko plana aurreratuagoa legoke.

Bestetik, alkateak foru administrazioko beste ordezkari batzuekin bilera izan berri du. Azken hori Nafarbidere enpresaren egoitzaren kokapenaz aritzeko izan da. Izan ere, autobiak eta haien bidesariak kudeatuko dituen gobernuaren enpresa berriaren egoitza Arakilen egonen da. Gobernuak Etxeberriko markesinaren ondoan kokatzea proposatu du. Arakilgo Udalak, berriz, Ardantzeta industrialdean. Horri lotuta, gobernuaren asmoa da Errepide Mantentze Zerbitzua Irurtzun erdigunetik ateratzea. Azken hori Irurtzongo Udalaren aspaldiko eskaera da, urbanizatu eta etxebizitzak eraikitzeke. Udala eta gobernuko ordezkariak bien kokapenaren inguruan hizketan jarraitzen dute.

Apaiz etxea guztiz berritzeko lanak hastear

Ihoteak pasa ondoren hasiko dira lanak, urte bat iraunen dutenak. Sakristia gaineko eraikin guztia bota eta berria jasoko dute. Foru plaza aldera terrazaren altuerako eraikina geldituko da, Zubeztia plazara, berriz, altuera bat gehiago izanen du

ALTSASU

Elizari lotuta dagoen sakristian eta apaiz etxean ezohiko mugimendua dago azken aldian. Haiek husten eta jasotakoak birkokatzen ari dira behin behinean. Bestetik, elizako argiteria eta megafonia aginte koadroak ere tokiz aldatuko dituzte. Parrokiako koroak entsegutarako tokia aldatuko du. Makina bat birkokatze egiten ari dira, "pazientziak hartuko dugu, behin behinekoa baita" azaldu du Patxi Izko Barberia apaizak. Guztia ihoteak pasata hasiko diren lanengatik da. Izkok azaldu duenez, "bost urte daramagu proiektuarekin. Behar dena eraikiko dugu. Baina hainbat arazoirengatik atzeratu behar izan dugu obra. Gure nahia lehenbailehen astea zen. Udalak hala eskatuta, inauterien ondoren ekinen diote lanei". Lanak milioi erdiko aurrekontua dute. Haiek finantzatzeko parrokiak mailegua eskatuko du eta elizbarrutiaren dirulaguntza izanen du.



Eraiste lanak aurki hasiko dituzte.

Eraikuntza enpresak apaiz etxea guztia bota egingen du. "Hainbat aukera aztertu ondoren, egokiena hori zela ikusi genuen", azaldu du Izkok. Eraistetik libratuko den pareta bakarra sakristiarena izanen da. Izkok azaldu duenez,

apaiz etxe berriak sarrerako atea toki berean izanen du, "baina lurraren maila berean egonen da, hara sartzeko gaur egun dauden hiru eskailera mailak kenduko baitira". Sakristia gainean solairu bat gehiago eraikiko dute. Horrek Foru plaza eta Zubeztia plazara izanen ditu fatxadak. Solairu horren altuera elizaren hegoaldeko sarrerara gainean dagoen terrazaren bera izanen da. "Horren ondorioz elizako pareta zati bat agerian geldituko da. Eta elizak leiho bat, beirate bat, irabaziko du: Aralarko aingeruaren irudiarena. Gaur egun beirate hori apaiz etxearen eskaileran dago", zehaztu du apaizak. Izkok azaldu duenez, eraikin berriak Zubeztia plazara bigarren solairu bat izanen du. Eta horretan apaizaren etxea egonen da. Lehen pisuan bilerak egin eta katekesia emateko gelak egonen dira. "Gehienbat parrokiak bizitzak beteko ditu. Baina herriari zabaldua egonen da erabilera".

Gidariak errespetatu beharreko sei espazioak gogorazi dituzte

Herrian ibilgailuak erabiltzean bete beharreko neurriak gogorarazi ditu Irurtzongo Udalak

IRURTZUN

Irurtzongo Udalak ibilgailuen erabilerari eta mugikortasunari buruzko kontzientzia hartzeko kanpainak egin izan ditu. Eta legegintzaldi honetan zentzu horretan pausoak emanen ditu. Mahai gainean du, besteak beste, plaza ingurua oinezkoendako bihurtzea. Bitartean udalak errespetatu beharreko eremuak gogorarazi dizkie ibilgailuen gidariei. Batetik, espaloiak errespetatzeko eskatu die, "oinetakoek bakarrik erabil baitituzakete". Bestetik, mugikortasun arazoak dituzten pertsonendako erreserbatuta dauden aparkalekuak errespetatzea ere eskatu du.

Aldi berean, taxiak bakarrik erabiltzeko eta garraiolarien zamalanetarako eremuak errespetatzeko eskatu du udalak. Bide batez, gogorarazi du zoruan ma-



Ezgaituendako aparkalekua. ARTXIBOA

rraztutako marra horiak ere errespetatu behar direla, haien parean ezin dela aparkatu eta beste murrizketa batzuk bezala errespetatu behar direla gogorarazi du. Azkenik, garajeen irteeretan ez aparkatzeko araua errespetatzea eskatu du.

Udalak auzolana arautzen duen ordenantza onartu du

Zeinek egin, zein dagoen salbuetsita, zigorra, ordezkapenak, libratzeak eta deialdiak arautu ditu

ARRUAZU

Arruazuko Udalak eta berarekin aritzen den lantaldeak beharrezkotzat jo zuen ofizialtzea Arruazun aspalditik egin izan den auzolana. Orain arte era informalean pasatu dira belaunaldiz belaunaldi auzolanaren inguruko arauak: zer den auzolana, zer adin tartetan dagoen auzolana egiteko beharra, zenbat ordaindu behar den hura egin ezean eta abar. Hori guztia jasotzen zuen agiririk ez zegoenez, bete-behar horiek guztiak biltzen dituen araudi bat onartu zuen udalak abenduaren 21ean.

Auzolana herrian errolatutako arbazuar guztiak egin behar dute. Bete behar horretaz salbuetsiak daude hemezortzi urtetik beherakoak eta hirurogei urtetik gorakoak, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten pertsonak eta preso dau-



Arbazuarra Kaleaundin. ARTXIBOA

denak. Arruazuko Udalak auzolanari ari diren istripu arriskuak aseguru bidez estaliko ditu. Iraupenari dagokionez, auzolanak gehienez sei ordu iraunen du eta arbazuar bakoitzak urtean bi auzolan egin behar dute, gutxienez.

Foru aurrekontuari Sakanarekin lotutako hamalau emendakin

Aurtengo Nafarroako Gobernuaren aurrekontuari aurkeztutako emendakinen bidez Sakanara 966.168 euro iritsiko liriateke. Haietako zortzi udalen inbertsionarako liriateke, bi Sakanako Garapen Agentziarendako eta atzena Aralarko santutegiarendako

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Aurtengo Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuaren tramitazioa aurrera doa. Otsailaren 23tik martxoaren 1era bitartean zuzenketa partzialak eztabaidatuko dira eta irizpena eztabaidatuko da martxoaren 7an. Alderdi eta koalizioek aurrekontuari emendakinak aurkeztu dizkiote. Baina aurreko urteetakoari jarraituz, bakarrik PSNk, EH Bilduk, Geroa Baik eta Zurekin Nafarroak aurkeztutakoek eginen dute aurrera. Gauzak ongi, baita Sakanari dagozkionak ere.



Sakanarekin lotutako emendakinak



Irurtzungo Atakondoa eskola

Emendakina onartuko balitz, Nafarroako Gobernuak eta Irurtzungo Udalak hitzarmena sinatuko lukete. Helburua Atakondoa eskola publikoko egungo gas naturaleko galdara biomasako galdarekin ordezkatzeta. Ondorioz, energia kontsumoa nabarmen murriztuko da eta zentro publikoaren energia eraginkortasuna hobetuko da. Hala jasota dago udalaren energia planean. EH Bilduk emendakin bidez 100.000 euro eskatu ditu. Lanak 180.000 euroko aurrekontua du, 170.000 euro galdarak eta 10.000 proiektu teknikoak. Lanak udan eginen lituzke udalak, baita eskolako 2. eta 3. pasabideak berritzea ere. Azken lan horietara 40.000 euro inguru bideratuko ditu udalak.



Aralarko santutegia: bideen hub-a.

Europako San Migel tokien ibilbidea eta Donejakue bidea Aralarren batzeko egitasmoa mahai gainean dago. Elizak santutegi ondoko eraikinean gazte aterpea eta ostalua egin nahi ditu. Geroa Baik 10 euroko partida sinbolikoa proposatu du, baina hala dagokionean, funts gehiago izan ditzan. UPNk asmo berarekin 400.000 euroko emendakina aurkeztu du, onartuko ez litzatekeena.



Ihabarko Eskribarena etxea

Arakilgo Udalak eraikina birgaitu eta bertan bost bat etxebizitza sortu nahi ditu, ibarrean etxebizitza eskuratzea errazteko helburuz. Lanek 812.805,62 euroko aurrekontua dute. Joan den urtean EH Bilduren emendakin baten bidez 300.000 euro bideratu ziren horretara. Baina dirua ez zen Arakilera iritsi Etxebizitza Departamentuko eta gobernuko kontu hartzaileek geratu zutelako. Departamentuan ez zuten proiektuko etxe kolaboratibo izendapena begi onez ikusi. Arduradun aldaketa izan da eta etxe kolaboratiboetako buruzko legea onartuko da. Horren ondoren iritsiko litzateke dirulaguntza Arakilera. Bitartean, EH Bilduk horretarako 10 euroko emendakina aurkeztu du, ondoren diru kopurua handituko litzatekeelako.



Bakaikurako ekipamendua

Emendakina onartuz gero gobernua eta Bakaikurako Udalak hitzarmena sinatuko lukete. Eskola zaharretako beheko solairuak udalak egindako haur eta gazte txokoa eta erabilera anitzeko gela janztera bideratuko litzateke laguntza. Altzariak, proiektorea eta beste erosiko liriateke 24.500 euroekin. EH Bilduk aurkeztu du emendakina.

Uharte Arakilen aterpetxea

Nafarroako Gobernuak eta Uharte Arakilgo Udalak hitzarmena sinatuko lukete emendakina onartuz gero. Haren ondorioz egoera txarrean dauden futbol zelaiko eta igerilekuen aldagela, ekipamendu eta biltegi gisa eraikitako espazioa lehengoratu liriateke, zikloturista eta erro-mesendako aterpetxe txikia eraikitzeke. Lehenengo fasean, estalkiak, eraispinak, hornidura eta saneamendu instalazioak, zimenduak eta zolak desamiantatuko liriateke. Oinarria utziko litzateke hurrengo bizpahiru fasetan lana despiditzeko. Lehen fase horretarako EH Bilduk 90.000 euro bideratu nahi ditu emendakin bidez.



Altsasurako bi mediku eta pediatra

Altsasuko osasun zentroan lehen mailako arretako bi mediku eta pediatra bat kontratatzea nahi du PPK. Horretarako, 175.000 euro bideratzea proposatu du emendakin bidez.



Sakanako Mankomunitatearen egoitza

Ibarreko erakundearen eraikinaren teitlatua egoera txarrean dago eta amiantozko elementuak ditu, lehenbailehen kendu beharrekoak. Horrez aparte, beste mantentze eta zaintza lan batzuk egin behar dira. Eraikina hainbat udal eta kontzejuren jabetzakoa da. Lakuntzako Udala izanen litzateke toki erakunde guztien izenean arituko litzatekeena lana kudeatzen. Lanak 212.000 euroko aurrekontua dute, hain zuzen ere, EH Bilduk aurkeztutako emendakinen kopuru bera.



Autobia Iturmendi parean egokitu

Sakanako Autobia (A-10), Etxarri Aranatz eta Altsasu artean arriskutsua da euria eta lainoa dagoenetan. Horregatik, PPK autobia Iturmendi parean egokitzea proposatu du, ibilbidea seguruagoa izan dadin eta istripuak saihesteko. Popularrek emendakin bidez horretara 250.000 euro bideratzea proposatu dute. Gobernuari eusten diotenen ez lukete onartuko.



Enerkide proiektua

Dinabiden ilbeltzaren 31n egindako bilera baten bidez martxan jarri zen Enerkide proiektua. Mugaz gaidiko energia komunitateak bulkatzea du xede Sakanako Garapen Agentziak (SGA) gidatzen duen egitasmoak. Hala, energia trantsizioa eta energia komunitateak sortzea erraztuko dira. Proiektuak urte eta erdiko iraupena du, eta 149.790,50 euroko aurrekontua. Haren erdia Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa euroeskualdeak ordainduko du, Nafarroako Gobernuak %30 eta SGAK%20. Foru administrazioaren aurtengo finantziario atala ordainitzeko 2.600 euroko emendakina aurkeztu du Geroa Baik.



Europako Edit egitasmoa

Sakana Garapen Agentziak Europako Poctefa Edit proiektua gauzatu nahi du. Haren bidez Nafarroako Ekonomia Zirkularrean aurrera egin eta nekazaritzako elikagaien sektoreko produktuen pasaporte digitalaren arloan interes handiko proiektua gauzatu ahal izanen da. Poctefa laguntzaren bidez proiektuaren %65 finantzatu da, Nafarroako Gobernuak %25 jarriko du eta SGAK %10. Gobernuaren zatia ordaintzeko, Geroa Baik 17.058 euro jasotzen dituen emendakina aurkeztu du.



Urdaingo frontoiko teitlatua

Oniritzia jaso zero, foru administrazioak eta Urdaingo Udalak hitzarmena sinatuko lukete. Haren helburua litzateke udal pilotalekuaren teitlatutik amiantozko elementuak lehenbailehen kentzea eta metalezkoengatik ordezkatzeko. Etorkezinean udalak han eguzki plakak jartzeko aukera luke. Horretarako, EH Bilduk 90.000 euro dituen emendakina aurkeztu du.



Arbizuko kiroldegiko klimatizagailua

Arbizuko Udalak kiroldegian duen klimatizagailua aldatu eta berria jarri nahi du. Dagoena zaharra da eta eraikina txikiagoa zenez jarri zen. Kiroldegia handitu zuten eta makinak ez du bere funtzioa ongi bete. Lan hori eginez igerilekuen guneko egungo baldintza termikoak hobetu nahi ditu, ez baitira lortzen horrelako espazioetarako behar diren temperatura eta hezetasun balioak, sistemaren energia eraginkortasuna hobetzeko eta, bide batez, 86/2018 Foru Dekretua betetzeko. EH Bilduk aurkeztutako emendakinean 120.000 euro eskatzen da horretara bideratzea.



Altsasuko euri uren kolektorea

Otadiako Kristo Deuna 3. sektorearen plan partzialean jaso zegoen euri urak jaso eta Arakil ibaira hustea. Halako lanik ez zen egin, eta behin-behineko irtenbide bat egin zen: euri-urak ur sare unitario zahar batera isurtzea. Hartan euri urez aparte ur beltzak jasotzen dira. Baina irtenbide horrek ez zuen Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimenik. Denbora gutxian euri zaparrada handiak daudenean, udan bereziki, uholdeak eragiten ari da inguru horretan, ur beltzen hodi zaharrak ez duelako nahikoa sekzioz sektoretik datorren euri ur guztia eramateko. Uholde horiek etxebizitzetan ere eragina izaten dute.

Arazoa Arakil ibaian bukatuko duen euri uren sare berri bat eginez konponduko du udalak. Horretarako trenbide azpitik pasatu beharra dago. Nafarroako aurrekontuak onartu bezain laster udalak dirulaguntza emanen zaionaren ebazpena eskatuko luke, proiektuaren erredakzioa emateko beharrezko forma betebeharrak baita. Proiektuak Ebroko Ur Konfederazioaren eta tren azpiegituren kudeaketaz arduratzen den Adif enpresaren txostenak behar ditu. Ondoren obra emateko deialdia egin beharko da. Lanak aurtengo hasi eta heldu den urtean despedituko lirateke.

Inbertsio hori ezin izan da sartu 2022-2028 Tokiko Inbertsioen Planeari sarea ez baititu 30 urte baino gehiago. Lana egin ahal izateko, Geroa Baik emendakin bidez proposatu du gobernuak Altsasuko Udalarari 300.000 euro transferentzia egitea, proiektuaren erredakzioa, obra zuzendaritza eta lanak ordaintzeko.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 16

ALTSASU Haurrendako ikuskizuna.

Txiki: gauza handiak lortzen dituzte pertsona txikien istorioa Adriana Olmedoren haurrendako ikuskizuna: Mayak konfiantza galdu du bere buruarengan. Uste du ez dela bestek bezain indartsua eta txikia sentitzen da. Indarra hartzeko eta ekiteko garaia da. Maya txikia izan arren boteretsua dela frogatzeko garaia da. Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrenaren barruan. Euskaraz. Sarrerak: 4 euro.
17:00etan, Iortia kultur gunearen areto handian.

ALTSASU Gazte agenda.

Ihauteri erronka eta afaria (3 euro).
18:00etatik aurrera, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Xabier Artiedaren *Energy* ikuskizunaren emanaldia.
22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Pilota jaialdia.

Binakako Pilota Txapelketa: Ezkurdia – Tolosa / Jaka – Mariezkurrena; Binakako B Serieko edo promesen txapelketaren hamalagarren partida:

Zubizarreta III – Ugartemendia / Exposito – Gaskue. Aspek eta Baikok antolatuta, Altsasuko Udalak lagunduta. Sarrerak:
22:15ean, Burunda frontoian.

LARUNBATA 17

ALTSASU Txirrindula irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Beunde - Ulaiar, 36 kilometroko ibilbidea.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ETXARRI ARANATZ Ekimena.

Etcharri Palestina Elkartasun taldearen ekimena.

13:00-20:00 Zenbaki bat baino gehiago dira, haur palestinarrek izena dute. Eraildako haurren izenen irakurketa, plazan.

20:00 Kontzentrazioa, plazan.

IRURTZUN Mus txapelketa.

Felix Mariñelarena Mus Txapelketa finala eta XV. Euskal Herriko Mus Txapelketako Irurtzungo kanporaketa: Amaia Mauduit – Patricia Balda / Aitziber Iragi – Andoni.
16:30ean, Iratxo elkarte.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

El último soldado gaurkotasuneko filmaren emanaldia
Igandea 18: 19:30

Bolante baten historia film dokumentalaren emanaldia, FilMOTEKA Nafarroan programaren barruan, Iban Toledo zuzendariarekin eta Eneko Etxeberria protagonistarekin
Astelehena 19: 19:00

Priscilla gaurkotasuneko filmaren emanaldia
Osteguna 22: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Felices 50 zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 22: 19:00

IGANDEA 18

ARBIZU Landaketa.

Oinez basoaren landaketa. Aitzurra eta gosaria eramán.
10:30ean, kanpinean.

IRURTZUN Magia ikuskizuna.

Hodei Magoaren %100 Hodei magia ikuskizuna. Sarrerak: 3 euro.
17:30ean, kultur etxean.



ALTSASU Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrena. Ospatu gurekin! dokumentu, objektu eta liburuen erakusketa.
Otsailaren 29ra. Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. Liburutegian.



UTZITAKOIA

ETXARRI ARANATZ Saharako liburutegi ibiltariak Hegoak Hegán Bubishi elkartearen hamabosgarren urteurrenaren erakusketa.
Otsailaren 23ra arte. Liburutegian.

ZORION AGURRAK



Noa Oraa Gonzalo
Igandean, otsailaren 18an, 6 urte beteko dituzu! Zorionak zure familiarean partez!



IRURTZUN Film dokumentala.

Auzolangintza auzolanari buruzko film dokumentalaren emanaldia, Iker Iriarte zuzendariarekin.
19:00etan, Pikuxar ganbaran.


ASTELEHENA 19

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

ESKELA



Margari Andueza Legarra

(Amando Floresen Alarguna)

2024ko otsailaren 10ean hil zen, 90 urte zituela

—Goian bego—



Eskerrik asko gure bizitzetan jarri duzun maitasunagatik
Gure bihotzetan beti

Zure familiye

ESKELA



Inés Rosco Alonso

—Goian bego—

"Zure konpromezua, eskuzabaltasuna,
indarra eta umorea konpartitzea luxua eta
ohorea izan da guretzat. Ez agurrik, ez
adiorik, esker mila eta gero arte bakarrik"

Atakondoa hezkuntza komunitatea

ASTEARTEA 20

LAKUNTZA Hitzaldia.

Empachados de azúcar hitzaldia, Lakuntzako Herri Eskolak eta Lakuntzako Eskolako Guraso Elkarrekin antolatuta, gaztelaniaz, doan.
17:30ean, eskolan.

ASTEAZKENA 21

IRURTZUN Irakurle taldea.

Karmele Jaioren *Maitasun kapitala* liburua mintzagai izanen du Irurtzungo irakurle taldeak.
19:00etan, Pikuxar ganbaran.

OSTEGUNA 22

ALTSASU Jardunaldiak.

Trenbidearen defentsan eta AHTaren txikizioa gelditzeko jardunaldien hasiera ekitaldia.
12:00etan, Iortia zabalgunean.

ETXARRI ARANATZ Ipuin kontaketa eta hitzaldia.

17:00 Bubisher elkarrekin Saharako liburutegi ibiltarien proiektua sustatzen duen Kabiak elkarrekin Sahararen aldeko ipuinak.

19:00 Saharako liburutegi ibiltarien inguruko hitzaldia eta aurkezpena.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

Oroimen erregistroak Mikel Arregi lakuntzarraren buruzko liburuaren aurkezpena, Txuri Olló eta Karlos Irujo egileekin.
18:30ean, Pikuxar ganbaran.

OSTIRALA 23

IRURTZUN Jardunaldiak.

Trenbidearen defentsan eta AHTaren txikizioa gelditzeko jardunaldiak. Mahai ingurua: *AHTari alternatiba Sakanan* proiektuaren aurkezpena. *AHTaren historia gure lurraldetik haratago*: Italiako ordezkari, Ipar Euskal Herriko ordezkari, Tren publiko eta sozialaren aldeko estatuko plataforma eta Sakana Trenaren Alde eta Oltza-Iza.
18:00etan, Pikuxarren.

ALTSASU Jardunaldiak.

Trenbidearen defentsan eta AHTaren txikizioa gelditzeko jardunaldiak. Hitzaldia: *Antolakuntza, borroka eta errepresioa Val di Susa* Italiako ordezkariarekin.

IRAGARKI SAILKATUAK

IRAKASKUNTZA

KLASEAK EMAN

LH ikasleendako klase partikularrak: Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

OHARRAK

Aita Mariren 2024ko lehen erreskate-misioa finantzatzeko 'crowdfunding' kanpaina martxan: Itsas Salbamendu Humanitarioak *crowdfunding* kanpaina hasi duela jakinarazi du Goteo plataformaren bitartez eta Fiare Banca Eticarekin lankidetzan. Informazio gehiago www.smh.eus web orrian. Parte hartzerako sartu ondoko loturan: <https://www.goteo.org/project/barco-de-salvamento-aita-mari>.

Elkartasun bilketa martxan: Etxean soberan eta egoera onean dituzun arropa eta bestelakoei Elkartasuneko bigarren aukera eman! Ostiralero, apirilaren 5era arte, 11:00etatik 13:00etara

Altsasuko Erkuden kaleko 8. zbkian (lehengo SD Altsasu taberna zen lokalean) baita Altsasuko BHI institutuan ere, 8:15etik 14:15era jasoko dizkizute eramaten dituzun gauzak. Jasotako guztiarekin antolatzaileek (Sakana Harrera Haranak eta Mankeko Anitzartean zerbitzuak) Elkartasun azoka eginen dute apirilaren 14an. Informazio gehiago 648 070 710 telefonora deituz edo anitzartean@sakana-mank.eus e-postara helbidera idatzi.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazio bidez zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali izezaguz Whatsapp mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak:

Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarteei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaizten da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30etan, 11:30etan, 13:30etan, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75

iragarki@guaixe.euswww.guaixe.eus/iragarkiak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZA barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

HERIOTZAK

- Carmen Cuevas Martinez, otsailaren 9an Altsasun
- Margarita Andueza Legarra, otsailaren 10ean Lakuntzan
- Pedro Barreira Marroyo, otsailaren 10ean Altsasun
- Maria Jesus Ezker Mendia, otsailaren 11n Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Sakanako Mendizaleak eta Lekunberriko Ttutturreko mendizaleak elkarrekin, Irañeta-Oderiz irteeran. SAKANAKO MENDIZALEAK

Sakanako Mendizaleak, urte berezia aurretik

MENDIA Ohiko egutegiaz gain, Federacion Vasco Navarraren mendeurreneko ekitaldi bereziak antolatu dira aurten. Aurreko igandean, lehendabizikoz Lekunberriko Ttutturre klubarekin batera egin zuten irteera, esperientzia ezin hobea

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Sakanako Mendizaleak koordinakundea Sakanako mendi klubek sortu zuten, guztiek elkarrekin gutxienez hilero irteera bat antolatu ahal izateko, autobusez. Lehenengo irteera 1985ko abenduan egin zuten. Beraz, aurten 39 urte beteko ditu taldeak. Peio Ruiz lakuntzarrak 20 urte pasa

daramatza presidente, Sakanako klubetako arduradunak eta bolutarioak bidelagun dituela. Sakanako Mendizaleak taldea sasoitsu dago. Betiko moduan, lehen irteera ilbeltzaren 6koa izan zen, Beriainera. Astebete beranduago Manolo Igoak eta Pedro Gonzalezek Sabando-Maeztu irteera antolatu zuten, eta

igandean lehenengoz beste klub batekin batera egin zuten irteera, Lekunberriko Ttutturrerekin. Miguel Ollok eta Mikel Goldarzenak antolatu zuten otsaileko ibilbidea, eta Lekunberriko mendizaleekin hitz egiten, elkarrekin joateko ideia sortu zen. "Irañetatik aterata, Aralarren gora Agiri herrixka zenera joan ginen.

Bertan Agiriko historia kontatu ziguten. Ondoren, Ata bailaratik gora dagoen Akier mendira heldu ginen, eta bertatik Oderitzera iritsi ginen. 80 lagunek bazkaldu genuen elkarrekin sagardotegian, giro ederrean. Esperientzia mundiala izan zen" azaldu dute mendigoizaleek.

Egutegia

Sakanako Mendizaleak taldeak azaroan ixten du urte osoko egutegia, asanbladan adostuta, beti ere Iratxo, Zabalarte, Larrañeta eta Altsasuko Mendigoizaleak klubaren irteerak errespetatuz. Nahi duen mendizale orok irteera bat planteatu dezake, eta ongi ikusten bada, egutegian txertatzen da. Hori bai, mendizale horrek izango du irteera hori antolatzeko ardura: ibilbidea zehaztu, kilometrajea eta desnibel datuak Miguel Ulaiarri pasa, hark ibilbideko profila egiteko, eta jatetxeren batekin harremanetan jarri, bazkaria lotzeko.

Martxoaren 17an Ataun-Lazkao mendi ibilbidea egingo dute (Andoni Gabirondo); apirilaren 14an Goiuri ur jauzia-Izarra (Ismael Tilve); apirilaren 27an Sakanako Ibilaldia; maiatzaren 12an Ezkabako ihesaldiaren bigarren etapa, Olabe-Saigots (Begoña); ekainaren 9an Ondarreta-Igeldo-Orio (Luis), irailaren 8an Narbaiza-Arantzazu (Jose Luis Lizarraga), urriaren 13an Euskal Herriko Erdigunea (Sakanako Mendizaleak); urriaren

27an Orhiko Tunela-Iratiko etxeak (Miguel Ulaiar); azaroaren 17an Tologorri-Txarlazo (Izaskun Bengoetxea); abenduaren 15ean Bidarra-Artzamendi-Itsasu (Andres Bengoetxea) eta abenduaren 22an Mendigoizale Eguna izango da, Aralarren. Egundorretan banatzen dute hurrengo urteko mendi egutegia.

Edozeinek eman dezake izena ibilbideetan. "Jendea anima dabila, gazteak hurbildu daitezela, gure mendi martxa bat zer den ikusteko. Ibilbide bakoitzeko arduradunak pausoa markatzen du, inor atzean ez gelditzeko, eta oso polita da Sakanako herri askotako jendea ezagutzea. Harreman handia sortzen da". Aurten Federacion Vasco Navarraren mendeurrena denez, ekitaldi bereziak daude. Martxoaren 16an herrialde bakoitzeko mendi altuenera ibilbidea egingo da, Nafarroan Hiru Erregeen Mahaira, eta apirilaren 28an Euskal Herriko 100 mendi igoko dira. Larrañetak Beriainera antolatu du irteera, Iratxok Ergara eta Altsasuko Mendigoizaleak Dulantzera. Maiatzaren 18an mendizale guztiek Elgetan egingo dute topo.

SAKANDARRAK MENDI MARTXETARA ANIMATU DITUZTE, EZIN HOBE PASATZEN DUTELAKO



NAFARROAKO FUTBOL FEDERAZIOA

Claver entrenatzailea, saritua

FUTBOLA Nafarroako Futbol Federazioko Entrenatzaileen Batzordeak antolatutako Entrenatzailearen Egunean 2022/2023 denboraldian mailaz igo ziren taldeetako entrenatzaileek aitortza jaso zuten, Lagun Arteako jubenilen entrenatzaile Jose Antonio Claver altsasuarrak tartean. Joan zen urtean jubenilen bigarren mailatik lehen mailara igo zen talde lakuntzarra.



Altsasuko jokalariei, babesa

FUTBOLA Otsailaren 9an, ostirala, Emakumezkoen Preferente Mailako Altsasu taldeko jokalariek jasandako sexu eraso salatzeako bilkura egin zen, Altsasuko Mugimendu Feministak deituta. Altsasuko Udalak ere Altsasuko Mugimendu Feministak egindako deialdiarekin bat egin zuen. Jokalariei babesa azaldu, eta antolakuntza feministarako deia egin zuten.

FUTBOLA Altsasuk garaipen hunkigarria lortu zuen etxean

Emakumezkoen Preferente Mailan Altsasuk Universidad de Navarra hartu zuen Dantzalekun. Nahiz eta OPUS-eko taldea aurreratu, altsasuarrak buelta eman zioten eta Nerea Arellanori eta Maalen Berazari esker 2 eta 1 irabazi zuten. Altsasuk azken postua atzean uztea lortu zuen eta hamahirugarren da (12 puntu). Asteburuan atsedena dute.

Gizonezkoen maila nagusietan ez zen jardunaldirik jokatu. Preferentean Altsasuk Zirauki hartuko du larunbatean, 11:30ean, Dantzalekun. Erregionalean Lagun Arteak Liceo Monjardin izango du aurkari igandean Sanduzelain (18:00), eta Etxarrik atsedean jardunaldia du.



Ferreira, Kintana eta Lechado. UTZITAKOA

DISKO JAURTIKETA June Kintanaren urrea Nafarroan

Larunbatean Nafarroako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa jokatu zen Iruñeko Larrabide estadioan. June Kintana Larraza atleta bakaikuarra (Grupompleo Pamplona Atletico) ez zuen areririk izan eta txapelketa irabazi zuen, kilo bateko diskoarekin 52,71 metroko jaurtiketa eginda, Angela Ferreira Lechadoren (38,68 m) eta Nerea Lechadoren (33,66 m) aurretik.

DUATLOIA Mikel Astiz, Espainiako Duatloi Txapelketan

Otsailaren 11n Espainiako Distantzia Erdiko Duatloi Txapelketa jokatu zen, Hajarren (Teruel). Duatletek 9,3 km korrika, 61 kilometroko bizikletan eta 3,1 km korrika osatu behar zituzten. Elite mailako partaideen artean Mikel Astiz Erro (Hiru Herri) ihabardarra zegoen. Fernando Zorrilla izan zen elite mailan azkarrena (1:06:00). Mikel Astizek lan ona egin zuen eta 37. sailkatu zen (1:14:00), lan ederra egin eta gero. Emakumezkoetan Laura Gomez gailendu zen (3:05:09).

Altsasukoa bai, Arbizukoa ez

Altsasuko XIII. Duatloia martxoaren 23an jokatu da (5 km/20km/2,5 km), banaka edo erreleboka. Izena ematea zabalik dago Rockthesport.com webgunean. Bestalde, aurtan ez da Arbizuko Duatloi bateranoa jokatu, "ohiko data eta inguruko aste bukaera guztiak jada okupatuta zeudelako", Arbizuko Udalaren esanetan. Joan zen urtean martxoaren 25ean izan zen.

Liderrek eta azkenek, biek irabazi nahi dute Altsasun

PILOTA Burunda pilotalekuak Binakako Txapelketako ligaxkako azken jardunaldiko partida hartuko du gaur, ostirala, 22:15ean. Aukerarik gabe dauden Ezkurdia-Tolosak Jaka-Mariezkurrena liderrak dituzte aurkari, eta biek jokoan dagoen puntua nahi dute

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Ezkurdiak eta Tolosak bizirik eta *play-off*etan sartzeko aukekin iritsi nahi zuten gaur, ostirala, 22:15ean Altsasuko Burunda pilotalekuan hasiko den jaialdira, baina Lasoren eta Arangurenen kontra galdu eta gero (10-22), ezinezkoa izan da. Jaka eta Mariezkurrena liderrak irabazita ere, ezingo lukete *play-off*etan sailketan. Horregatik, material aukeraketan triste zegoen aurrelari arbizuarra. "Pena handiarekin gaude ez dugulako helburua lortu: partida honetara bizirik iristea. Baina hori ahaztu, eta Altsasun txapelketa ahalik eta aurpegi onenarekin bukatzeko asmoa dugu. Badakigu zaila dugula, baina liderren kontra partida ona egin, eta puntu bat lortzea motibazio handia da" azaldu zuen. Binakakoa bukatuta, erronka berriak helduko dira. "Txipaldatzeko gogotan nago. Txapelketa hau guretako ez da erraza izan. Ea helburu eta motibazio berriak hartu, eta buruz burukora ongi iristen garen".

Jon Mariezkurrena Altsasuko partidarako "gogotsu" dago. "Partida polita espero dugu. Gu jada finalerdietarako sailkatuta gaude eta eurek ez dute aukerarik, baina Joseba sakandarra izanda ziuurren jendea ekarriko du,



Tolosa, Ezkurdia eta Alustiza, Altsasuko partidarako hautatutako pilotekin.

eta niretako ere polita da hemen jokatzea, Berriozartik gertu dudalako. Dezentetan jokatu dut Burundan, eta gustura jokatzeko dut hemen. Gustuko dut, asko nabarmendu zuen. Partida pare batean baja hartu zuen Mariezkurrenak, baina Tolosan berragertu zen, eta "oso ongi, sentsazio onekin" sentitzen da. "Badirudi eskuan nituen arazotxo horiek gauditut ditudala, eta Altsasuko konfiantza hartzeko partida polita izango da. Berehala finalerdietako ligaxka dator, eta irabazita iristea komeni zaigu".

Zabaleta, sailkapen zuzena jokoan

Binakako azken jardunaldian, Artola-Imazek eta Peio Etxeberria-Zabaletak lehia borrokatua izango dute larunbatean Iruñeko Labriten. Jokoan asko dute: finalerdietarako txartel zuzena lortzea, *play-off*ak ekidinez. Bestalde, Zabalak eta Martijak Peñari eta Albisuri irabazi eta gero, Altuna-Martijak *play-off*etako laugarren postua ziurtatuta dute. Bukatzeko, igandean Donostiako Atano III. ean Elordi-Rezustak eta Laso-Aranguren *play-off*etako azken postua dute jokoan.



Aaron Arbizu, Burundan.

B seriean Arbizuk ez du zortea alde izan

Binakako B Seriean edo promesen mailan, Aaron Arbizu etxarriarrak Iker Salaberria goizuetarrarekin debutatu du goi mailako txapelketa batean, baina Salaberriak eskuineko eskuko kailuan dituen arazoen bikotea kondentatu dute: zortzi partidetan egin du baja. Hura ordezkatu duten pilotariak ere lesioak izan dituzte tarteko. Horrela, Arbizu eta Salaberria finalerdian sartzeko aukerarik gabe daude. "Oso gogorra da txapelketa hau. Lesioekin ez dugu zorterik izan, baina pertsonalki gustura ari naiz jokatzeko" azaldu du Arbizuk. Asteazkenean Ezkurdiekin entrenatu zuen. Ligaxkako azken jardunaldian Dario-Arbizuk Larrazabal-Eskiroz dituzte aurkari.

Aritz Oiarbide eta Jon Erdozia, final handira

AIZKORA Bi lehengusu etxarriarrek Banakako Aizkolarari Gazteen Urrezko Txapelketako finala jokatu dute

Asteburuan Aizkolarari Gazteen Urrezko Txapelketako finalerdia jokatu ziren Beizaman eta Oñatin. Larunbatean, Beizaman, Aritz Oiarbide etxarriarra izan zen bi 45 ontzakoak azkarren moztu zituen aizkolaria (4:32),

Jokin Larrietari 7 segundo aterata (4:39). Osinalde hirugarren izan zen (5:08), eta Aittola azkena (5:36). Igandean, Oñatin, Jon Erdozia etxarriarra oso fin ibili zen bi 45 ontzakoak erdibitzen (2:31), Igoen Pikabeari 6 segundo

atera baitzizkion (2:37). Isidro Velasco hirugarren izan zen (3:08), eta Oier Mitxelena altsasuarra laugarren (3:21). Final handia otsailaren 25ean jokatu dute, Azpeitian, Jon Erdoziak, Igoen Pikabeak, Aritz Oiarbidek eta Jokin Larrietak. Lau 45 ontzako mozteko lana izango dute.

Sakanako Aizkora Eskola

Sakanako Aizkora Eskola martxoaren 4an hasiko da. Izena ematea zabalik dago otsailaren 26ra arte, Mank-en (683 343 854).



Erdoziak denbora ona egin zuen. EGUR SPORT


Xabier Artieda aktorearen energia eszenatokian

Gaur, otsailak 16, ostirala, antzerkigile etxarriarren ikuskizuna izanen da Etxarriko kultur etxean

ETXARRI ARANATZ

Pertsonaia desberdinak gorputz bakar batean. Hori da Xabier Artieda antzezle etxarriarrak *Everybody needs...* ikuskizunean proposatzen duena. Otsailaren 16an, ostirala, 22:00ean, Etxarri Aranazko kultur etxean emanaldia emanen du. Sarrerak 6 eurotan eros daitezke udalaren webgunean.

Gorputz espresioa erabilita, egunerokotasuneko pertsonaia desberdinetan bilakatu da Artieda. "Barrez lehertzeko" antzerki bat da.



Xabier Artieda antzezlea. UTZITAKOIA



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Pikutara natura

Bai, bai... Badakizu zer esaten diodan nik naturari? Pikutara joan dadila esaten diot nik naturari!!! Hitz hauekin definitu liteke komiki hau, *Karramarroen martxa*, azken aldi honetan irakurri dudana komiki kurioso eta interesgarria! Lagun batek bere bilduman zuen, eta irakurtzeko eskaini zidanean ez nuen espero hain gustuko izango nuenik.

Karramarroen martxa Arthur de Pins ilustratzaile frantsesak idatzi eta marraztu zuen. 2011.ean argitaratu zuen. Ez zen Arthurren lehen komikia ezta inoiz argitaratuko zuen ospetsuena ere, baina berarendako, pertsonalki, bereziena izango da, zalantzarik gabe. Arthurrek, zazpi urte lehenago, 2004an, animazio film motz bat egin zuen gai berdinari buruz. Beraz, film labur hura komiki bihurtzea proposatu ziotenean ez zuen zalantzarik izan.

Gironan, Frantzia, hondartzetan karramarro espezie bat bizi da. *Cancer Simplicimus Vulgaris* edo "karramarro karratua" du izena. Espezie horretako

karramarro hauek gaitasun berezi bat dute: haien eskola karratuaren erruz, ez dira bira egiteko gai. Beraz, bizitza guztia pasatzen dute lerro zuzen batean. Ezker edo eskuinera oinez egiten, beti norabide berdinean. Haien existentzia horren xumea da, non karramarro hauek ez dute izenik ere. Baina egun batean karramarro batek izen bat jarriko dio bere buruari, "txalupa". Hortik aurrera, karramarro horrek iraultza bat piztuko du hondartzara osoan.

Marrazkiei dagokionez, Arthurren estiloa hasiera batean arraroa iruditu zitzaidan, baina gero eta gehiago irakurri, gero eta gehiago gustatu zitzaidan. Ilustratzaile baino, Arthurrek diseinatzaile grafikoa dirudi. Koloreen erabilera itzela da, orrialde eta bineta guztiak dute zer bait interesgarria. Hasieran zozoa izango zela pentsatu banuen ere (kolore plano pila bat erabiltzen baititu, itzalik eta degradatu askorik gabe), oker nengoen, guztiz. *Karramarroen martxa* umorea, hondartza eta iraultza batzen ditu komiki super dibertigarri bat sortzeko.

"Iruñeko Alde Zaharrak gauza asko ditu kontatzeko"

JOSE MIGUEL ALBIZU IRURTZUN

Erdi Aroko Iruñean oinarritutako nobela argitaratu du irurtzundarrak: 'El latido de los tres Burgos'. 'Thriller' bat da

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Literaturarekiko eta historiarekiko zaletasuna uztartuz, Josemi Albizu irurtzundarrak *El latido de los Tres Burgos* eleberria publikatu du, Eunate editorialarekin. Erdi Aroan girotutako thriller bat da eta dagoeneko, jarraipenarekin ari da lanean. "Tramaren zatiren bat" Sakanan kokatzea gustatuko litzaioke.

Noiztik duzu idazteko zaletasuna?

Etxean, Irurtzunen, liburuak oso preziatuak ziren. Txikitatik, asko disfrutatzen nuen irakurtzen, eta gehienbat thrillerrak, eleberrri beltzak, abentura eleberrriak eta abar izaten nituen gustuko. Betidanik ere eleberrri bat idazteko nahia izan dut buruan. Izan ere, bizitza profesionalak, komunikazioarekin eta marketinarekin lotuta izan dira, eta besteak beste, sormen proiektuak irudikatzea, eraikitzea, idaztea eta abar tokatu izan zait. Horrela lanak berak, idazle baten bi alderdiak praktikatzen eta garatzen lagundu dit zalantzarik gabe.

Zeintzuk dira bi alde horiek?

Fikzioa idazten duenak, hasieratik trama bat sortu behar du, pertsonaiekin gertatu behar dena irudikatu behar du. Hori sormen alderdia da. Beste alde batetik, bigarrenean, idazmena dago, idazketa prozesua bera. Eleberrri honetan, tramaren eraikuntzari dagokionez, Nafarroako Erreinuaren historian sakontzea nahitanahiezkoa zen. Nik, egia esan,

historiaren jakin-mina betidanik izan dut, gauzak eta gertakariak nola gertatu ziren ikertzekoa... Erdi Aroa beti oso garai bitxia iruditu zait. Aurretik ere Garai honekin lotutako proiektuak garatu izan ditut, Nafarroako trivial jokua, *Navarriaren sortzailea* naiz, baita *Nafarroako Xakearena*.

Nolakoa izan da prozesua? Dokumentazio lan handia egin duzu, ezta?

Bai, jakina. Ni ez naiz historialaria. Eleberria dokumentatzeko lana, gainera garai eta leku hain zehatz batean, handia izan da, bai. Baina bestalde, biziki disfrutatu izan dut berarekin. Garai hartan nola bizitzen ziren, beraien ohiturak eta sinismenak, gertatu ziren gauzak, eraikuntzen historia eta abar ikertzea izugarri gustatzen zait. Beste alde

"BETIDANIK HISTORIAGATIK JAKIN-MINA IZAN DUT; NOLA GERTATU ZIREN GAUZAK"


"GAUZA ASKO SORTZEN DIRA NOLA JAKIN GABE; BADAGO HAIEN ARTEKO HARIEN BAT"

batetik idazketa prozesuari begira, idazten hasi nintzenetik gaur egun arte, idazteko modua asko aldatu dela esango nuke. Hasieran trama sendorik izan gabe hasi nintzen idazten eta thriller batean, nobela ekintza batean, zaila da ongi eraikitako trama bat sortzea gidoirik gabe. Ipar-orratz idazleak eta mapa idazleak omen daude. Baina hau bezalako eleberrri batean, non pertsonaia eta gertakari asko lotzen joaten diren, behar beharrezkoa da mapa bat izatea eleberria idazteko.

Zenbat denbora egon zara idazten?

El latido de los tres burgos idazten hamar urtez egon naizela esaten badizut, ez nintzateke gezurretan egongo. Egia da hasieran idazteari denbora gutxi eskaintzen niola, lanarekin uztartu behar nuelako, eta azken bi urteetan eman diot bultzada. Denbora honetan guztian denetarik gertatu zait. Behin gure etxean sartu eta argazki kamera eta ordenagailu eramangarria lapurtu zizkiguten, eta idatzitako guztia galdu nuen. Nobelaren zati handi bat berridatzi behar izan nuen, baina, nire ustez, une horretatik aurrera hasi nintzen beste era batera idazten, zer kontaktu nahi nuen jakin, erabaki, eta nolabait mapa eraiki nuen. Horrek lagun du zidan hobe idazten.

Lorea, Miguel eta Juan dira protagonistak. Zergatik pertsonaia horiek?



Jose Miguel Albizu idazle irurtzundarra Iruñeko Karmen kalean. IBAN AGUINAGA / DNN

Ez dakit. Batzuetan gauzak beren zergatia ondo jakin gabe sortzen dira. Nire ustez, kasu honetan, ideiak Erdi Aroko bizitza nolakoa izango ote zen imajinatzen sortu ziren. Protagonistak elkarren artean lotura duten hiru pertsonaia dira. Obanosen txikitatik bizi dira, eta haurtzarora markatzen duen esperientzia bat elkarrekin bizi izan zuten. Gero baikoitzak bere bidea hartzen du, baina hiruen kasuan, egoera desberdin horietatik, garaiko justizia haien atzetik doa; bidegabeki jazartzen diete. Miguelen semea bahitu egin dute, Lorearen senarra atxilotu eta espetxera eta Juanen amonak, bere heriotza ohean, aitonaekin zerikusia duen istorio bat aitortu eta promesa bat betetzeko eskatuko dio. Azkenean, hiru trama ezberdinek bat egiten dute, eta hiru lagunek fronte komun bat egiten dute erresumako gobernadorearen aurka.

Hori guztia testuinguru bitxi batean oinarrituta.

Nafarroako Erresuma erresuma txikia zen, baina paper garrantzitsua izan zuen Europako Erdi Aroko historian. Nafarroako errege-erreginak Frantziakoak ere baziren, edo, bestela, Frantziako koroa nahi zuten. Beraz, Frantziaren aliatuak edo etsaiak ziren. Ehun Urte Gerran, Karlos II.a Ingalaterrarekin batu zen Frantziaren aurka. Gaine-

ra, garai hartan bi Aita Santu zeuden Mendebaldeko Zisma deitutakoan, eta Martin de Zalbala Iruñeko apezpikua zena elizan haustura hori eragin zuteneko bat izan zen. Hori Europaren kasuan. Iruñeari dago-kionez, hiru hirik, hiru burgok, osatzen zuten; bereiztuak zeuden eta babes erretenak eta harresi bidez bananduta zeuden: Nabarreria, San Zernin eta San Nikolas. Nabarrerian baskoiak bizi ziren eta jatorrizko gunea zen: apezpikua nagusia zen eta euskaraz hitz egiten zuten. San Zernin errege eta apezpikuen laguntzarekin sortu zen, eta bertara frankoak heldu ziren, frantses erromantzea hitz egiten zutenak. Azkenik, San Nikolas non jatorri eta hizkuntza ezberdinak nahasten ziren. Batzuen eta besteen pribilegioen ondorioz, burgoen arteko borroka etengabea izan zen Erdi Aro osoan zehar. Trama testuinguru honetan kokatu nahi izan dut. Azkenean, Iruñeko hiru burgoen arteko borrokak bote-re borrokak baino ez ziren, garaiko agintariak bultzatuta edo herritarren altxamenduak zeuden ezberdintasun sozialak leuntzen saiatzeko.

Nola inspiratu zara?

Nik uste bizitzaren edozein beste esparrutan bezala, atzean lana dago; garrantzitsuena lana da. Horixe baita ideiak sortzen joa-

ten diren esparrua, aukerarik hoberena ere bertan aurkitu ahal duzu. Dudarik gabe, Iruñeko Alde Zaharren hurbiltasuna ere inspirazio iturri bat izan da, kaleek gordetzen dituzten istorioak. Alde Zaharrak ezagutzen ez ditugun istorio asko ditu. XIX. mendera arte Iruñea bakarrik Alde Zaharreko kaleek osatzen zuten. Une horretan bertan izan zen harresiak eraitsi eta hiria zabaldu egin zenean, baina Alde Zaharreko hiri trazadura Erdi Aroko berbera da. Eraikinak baxuagoak ziren, bi solairukoak, eta, beraz, kaleak argitsuagoak zirela imajinatzen dut; etxeak adobezkoak ziren eta abar. Iru-dikatze ariketa horrek elikatzen du inspirazioa.

Bisita gidatuak egitea pentsatzen ari zara?

Bai, hainbat bisita gidatu egin ditut dagoeneko. Lehenengo bisita gidatua Iruñean egin zen Edizio Azokan egin nuen. Maria Osetek, Eunate argitaletzeko editoreak, solasaldi bat egin beharrean bisita egin nezakeela esan zidan, eta kasu egin nion. Egia esan, kaleak Erdi Aroko berberak dira, eta eraikin askok bizirik iraun dute gaur egun arte; beraz, bisitak oso aberasgarriak dira. Bisitak egiten jarraitzeko prest nago, gauza asko baitaude kontatzeko. Gertaera bitxiak ere azaltzen ditu eleberrian, adibidez, Gaz-

teluko plazan egindako lehen zezenketa dokumentatuta dagoena edota Iruñeko katedral erromanikoaren erorketa. Gertaera historiko horren inguruan gertatu zitzaidan pasadizo bat: Kontua da Iruñeko katedrala berez 1390ean erori zela lurrikara baten ondorioz. Nobela 1384an kokatzen bada ere, niri ongi zetorkidan katedrala une horretan erortzea, beraz, lizentzia literario txiki bat hartu nuen eta sei urte lehenago eraitsi nuen.

Nolakoa izan da edizio prozesua?

Mota honetako eleberrietan pertsonaia asko daude, eta elkarri lotutako gauza asko gertatzen dira. Hori dela eta erre-paso ugari egin behar izan ditut dena ondo itxita egon dadin. Egia esan, nobelaren behin be-

"EGOERA OSO ZAILA ZEN; IRUÑEAN HIRU BURGO ZEUDEN, HIRU HIRI GUZTIZ BANANDUTA"

"BIGARREN ZATIA SAKANA AGERTZEA GUSTATUKO LITZAI DAKE; NONDIK HARTU BADAGO"

tiko testua onartu ondoren dagoen lan guztiak harritu ninduen. Argitaletxeen lana izugarria da: ortografia zuzenketak, estilo zuzenketak, maketazioa, azala, azaleko testuak, kontrakoak, gainazalak... Baita eleberraren izenburua ere. Sustapenarekin zerikusia duen guztia ere; Eunate argitaletxe txikia da, eta egileok proaktiboa izan behar dugu aurkezpenak egiten eta abar. Nire kasuan Iruñean, Lizarran, Erriberrin, Bartzelonan eta, jakina, Irurtzunen egin ditut aurkezpenak. Durangoko azokan ere egon nintzen.

Zure lehenengo nobela da, baina ez azkena.

Bai, idazten jarraitzen dut. Orain *El latido*-ren jarraipena idazten ari naiz. Garai hartan gauza asko gertatu ziren, eta oso interesgarriak ziren haien ohiturak: lo egiten zuten modua, bi txandatan bezala, hain zuzen; ura baino askoz ardo gehiago edaten zuten urak gaixotasun asko sortzen zituelako, eta gaixotasunak, adibidez, lau umoreen arteko desoreka batek eragiten zituela uste zuten: umore beltza, horia, zuria eta gorria. Egia esan, fikziorako bidea den garai bat da eta oso eraso sentitzen naiz eszenatoki horretan. Eleberria 1384an amaitzen da, eta, ondoren, 1423an Batasunaren Pribilegioa izan zen. Urte horietan gauza asko gerta dakieke nobelako pertsonaiei. *El latido de los tres burgos* hasten eta amaitzen da, baina trama batzuk irekita gertatzen dira.

Sakanara gerturatuko zara?

Hori da nire asmoa. Nire lehen eleberria dokumentazio historia agertzen den lekuetan kokatu dut, noblezia bizi zen lekuetan eta erret jauregietan girotu dut: Erriberri, Lizarra, Obanos, Uxue, Iruñea... Kasu askotan kontabilitateko dokumentazioa da aurkitzen ahal den dokumentazio bakarra, baina argibideak ematen dizkigu zer jaten zuten, errege-erreginek eta gortean bizi zirenek beren dirua zertan gastatzen zuten. Ilusioa egiten dit tramarren zati bat Sakanan garatzeak. Berez, XIV. Mendetik aurrera Etxarri Arantz, Uharte Arakil eta Lakuntza hiribildu onak bezala agertzen dira dokumentu batzuetan. Badago nondik hartu. Garai hartan Bernoako galtzada zegoen. Materiala ez zait faltako, ezta ilusioa ere.

"Inguruko ekimenak ikusteko 'app' bat da"

Irune Guinea Zufiaurre altsasuarrak, Emma Velez lagunarekin batera, JaiMapp aplikazioa sortu du. Ekintzailtza Saria irabazi zuten, eta maiatzerako, festa sasoirako, prest izatea nahi dute

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer ikasi duzu?

Aurreko urtean Plataforma anitzeko aplikazioen garapena bukatu nuen, Gasteizen, aplikazioak eta abar garatzeko, eta aurtan Web aplikazioak garatzeko ikasketak egiten ari naiz.

2 Zerk erakarrita aukeratu zenuen ikasketak horiek?

Txikitatik ordenagailuetan eta mugikorretan oso interesatua egon naiz. Bigarren batxilergora arte ez nekien zer ikasi nahi nuen, eta han IKT irakasgaien programatzen hasi ginen eta horrek interesa sortzen zidala ikusi nuen.

3 Beraz, programatzen ikasten duzu.

Bai. Lengoia askotan: Java, Python, C... Sortu dugun aplikazioa Flutterren izan da, oso berria da. Denetarik ikasi dugu.

4 JaiMapp deitutako aplikazioa sortu duzue. Nola eta zergatik?

Berez ez dago ikasketekin lotuta. Ekintzailtza teknologiko jardunaldi batzuetara eraman gintuzten eta bukatzerakoan esan ziguten txapelketa bat zegoela. Ideia egunean bota eta paseak pasatzen eta pasatzen joan ginen. Pixka bat zaila izan zen ni Erasmusean nengoelako. Baina finalera iritsi ginen.

5 Eta irabazi zenuten.

Araba Ekin Ekintzailtza Teknologikoa kategorian irabazi genuen, eta 1000 euroko saria eta BIC Araba eta Urrats baten sei hilabete mentoretza jasotzea irabazi genuen. BIC enpresa irubadora bat da eta enpresa sortzen laguntzen dizute.

6 Zertan datza JaiMapp?

Aurkeztu genuen ideia berez ez da oso berritzailea. Kultur



Irune Guinea Zufiaurre JaiMapp aplikazioko garatzailea.

ekimenak begi bistan aurkitzeko aplikazio bat da. Gehien bat herri txikietarako planteatu genuen, oso ezagunak ez direnak, eta beste modu batera bisitatuko ez zenuenak. Horretara bideratu genuen eta hortik tiratu genuen. Gaur egun informazio hori ez dago inon zentralizatuta. Badago *eh_jaiak* bezalako Instagram kontua, baina ez dago toki bat non begi bistan ikus dezakezun zure inguruan zer dagoen. Orduan, sortu dugun aplikazioan mapa bat dago eta bertan inguruan zer daukazu egiteko ikus dezakezu. Egutegi eta zerrenda bat ere badaude. Izan daiteke larunbata batean zerbait egin nahi duzula baina ez dakizula zer, begiratzen duzu eta inguruan zer dagoen ikus dezakezu. Erabiltzaileari laguntza errez emateko da.

7 Nolako da aplikazio bat sortzeko prozesua?

Lehenengo ikusi behar genuen egin zitekeen edo ez; datuen erabili, nola gorde datu horiek eta abar. Gero diseinuarekin eta programazioarekin hasi ginen. Ni naiz perfil teknikoagoa eta programatzeaz eta halakoetaz arduratzen naiz gehiago. Nire laguna dokumentazioaz eta horietaz. Gauza hauek Googlea igotzeko kristoren papeleoa egin behar da. Burokrazia handia dago, espero genuena baino gehiago.

8 Programatzea gustatzen zaizu.

Bai, asko. Gainera hau framework berri batekin egon gara egiten. Lehen Androide-rako aplikazio bat egiten zeneanean, ezin zenuen IOSerako kodigo bera erabili eta bi aplikazio egin behar zenuen. Berri honekin behin programatzen duzu eta gero migratzen duzu. Pixka bat ikertzeko era-

biltzen hasi gara; egiten ari garen bitartean ikasten ari gara.

9 Aplikazioen mundua garatzen ari da, ezta?

Bai, geroz eta gehiago. Framework berriak eta lege berriak ateratzen ari dira; datuen tratamenduengatik eta abar. Paper pila bat egin behar dira, izan ere, arriskutsua da gure datuak tratatzeko modua eta hori kon-tuan izan behar da. Etengabe ikasten egon behar gara. Egia da behin programatzen hasten zarenean pentsaera algoritmiko hori daukazula, eta lengoaiak ikasteara migratzen joatea da. Ez da hainbeste kostatzen, baina ikasten eta informatzen joan behar gara, bai.

10 Zein da hurrengo urratsa?

Saiatzen ari gara maiatza inguruan aplikazioa prest egon dadin. Uda sasoi hoberena da. Enpresa aurrera badoa beste aplikazio gehiago ateratzea nahi dugu. Sari gehiagotara aurkeztea pentsatu dugu ere. Urrats bat deitutako programa bat dago eta enpresa sortzen baduzu laguntzen dizute.

11 Erasmusean ere egon zinen. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Eslovenian egon nintzen praktikak egiten eta e-learning plataforma bat sortzen egon nintzen. Askatasun osoa izan nuen proiektu guztia nirea zelako. Ni bakarrik nengoen horretan lan egiten, eta oso gustura egon nintzen.

MATRIKULAZIO KANPAINA
2024-2025

ZUEN IKASTETXERAKO BEHAR DUZUEN MATERIAL GUZTIA

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 - 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus - Foru plaza, 23-1. Altsasu